

# ZAMUDIOKO ERMITAK

## SANDONI

Irailaren 2a.

San Antolin ere deitzen da.

Sandoni auzoan dago, pinudi batean, platanoak dauden belardi baten ondoan. Ermitatik hurbil galtzada zaharra dago. Hurbileneko baserriak: Aranburu, Aranburugoikoa, Erreketa, Loagagoiko, Loagaerdiko, Loagabeko, Madariagabekoa, Goikoetxebarri, Bolibarbekoa, Bolibargoikoa, Munusdegi, Zolloena, Bolibarurrutia, Bolibarurrutixu, Bolibarurrutibarri, Sarratu, Aranbe, Etxebarri, Arana eta Basterretxe.

Handik beste ermita batzuk ageri dira: Dañoko Done Mikel Goiaingerua, San Tomas, Geldoko San Bartolome eta Lezamako San Bizente.

Haren ezaugarriak kontuan izanik, ermita hau XVI. mendean egina dela pentsa daiteke. Ermita honen lehenengo aipamenak XVII. mendearen amaierako agiri batean egin ziren.

1677ko Fabrika Liburuek ermita honetan lanak egin zirela jaso zuten. 1686an, Martin Aurrekoetxeak lan egin zuen ermitan; hargin horrek kanpandorrea egin zuen ermitarako —gaur egun galdua dago—, eta ermitaren aurrealdean lan egin zuen.

Konponketak egin zitzaizkion 1973an eta 1980an.

Eraikinak oinplano laukizuzena du, 14,90 x 8,30 m-koa. Harri hormak ditu eta harlanduz eginiko kantoiez apaindurik daude. Hiru isurkiko teilatua du, kanpai-hormarik gabe. Hegoaldean, zirkulu erdiko arkuko atea du, xake taula eta botoi itxurako apaingarriak dituzten inpostekin. Hegoaldean badu idi begiko leiho bat, eta ekialdean, saietera bat. Zoladura harlauzaz egina dago. Korua egurrezkoa da. Elizpeak Epistola aldearen luzeraren hiru laurden hartzen ditu.

San Antolinen eta Doloretako Ama Birjinaren irudiak dauzka.



## SAN BARTOLOME

Abuztuaren 24a, San Bartolome izena du.

Geldo auzoan kokatua dago, Berreaga mendiaren magaletako batean. Hurbileneko baserriak: Artasarri, Artetxe, Aurrekoetxea, Goikoetxea, Etxebarria, Ormaetxe, Atxuri, Goikomendi eta Berreagamendi.

Geldo auzoan ermita bat zela egiaztatzen duen lehenengo aipamena XVI. mendearen amaierako agiri batean aurkitu da. 1597ko agiri batean San Paulo Geldokoa irakur daiteke; antza denez, hura zen haren antzinako izena. Izen horrekin aipatu zen XVIII. mendera arte.

1682tik 1688ra bitartean, Martin Aurrekoetxea harginak lan garrantzitsua egin zion, lan horrek zein kostu izan zuen kontuan izaten badugu; ziur aski orduan emango zion eraikinari gaur egun duen irudia.

Zamudioko 1706ko udal kontuetan jasotakoaren arabera, San Bartolomeren irudi baten truke ordainketa bat egin zen; irudi hori San Paulo ermitarako zen. XVIII. mendearen lehen erdialde horretan ermitaren izena aldatu egin zen: apezpikuaren ordezkariaren 1741eko bisitan San Bartolome ermita aipatu zen. Hala ere, San Pauloren irudia ermitan utzi zen, beharbada antzinako izena gogoraraztearren. Gaur egun ere, titularraren irudiaren ondoan, bada San Pauloren irudi bat.

Auzo honetan oraindik bizirik dago ermita antzina Berreaga mendiaren tontorrean kokatua zegoelako ustea. Mendi horretan eginiko arkeologia azterketetan, oinplano laukizuzeneko egitura baten zimenduak aurkitu ziren tontorretik hurbil; Arostegiren eta García Caminoren arabera, lehenengo ermitaren zimenduak dira.

Eraikinak oinplano laukizuzena du, 8,90 x 6,19 m-koa. Harri hormak ditu, harriak agerian dituztenak; kantoiak harlanduz eginak daude. Elizpean badira harri landuen hondakinak (inpostak eta erlaitz landuak); ziur aski tamaina handiko beste eraikinen batekoak dira. Bi isurkiko teilatua du eta ate buruduna du, hego-mendebaldera jotzen duena. Ipar-ekialdeko eta hego-mendebaldeko hormetan saietera bi ditu. Zoladura harlauzaz egina dago. Elizpea Epistola ondoan dago. Elizpearen gainean badu burdinazko gurutze txiki bat.

San Bartolomeren irudia, «txerren» deitzen dioten deabrua zintzilik duena. San Pauloren, Jesusen Bihotz Santuaren eta tamaina txikiko ama birjina baten irudiak daude ermita honetan.



Historia oharrak: Iturritzaren edizioan (1938), Angel Herrerok baieztatzen du San Bartolomeren irudia Laucarizko elizan zegoela:

*Es tradición en Laucariz que en la cumbre del monte Berreaga existía una ermita con la advocación de San Bartolomé, donde recibían el pasto espiritual los vecinos de Laucariz y los de Geldos. En efecto allá se descubren ruinas y en la iglesia de Laucariz está decapitada la efigie (sic) de San Bartolomé que se dice ser de la ermita de Berreaga. Desaviniéronse ambos barrios y los de Laucariz edificaron abajo iglesia*

*con la advocación de Santiago y los de Geldos una ermita con la de San Bartolomé, a pesar de haberse llevado los primeros la imagen. Dícese que la iglesia de Laucariz se costeó solo por seis casas.*

*También se visitó la hermita de San Bartolomé perteneciente adha Anteigl<sup>a</sup> de Zamudio que se halló decente y solo se notó que la efigie de San Pablo que está colocada en el altar único del santo titular causa irreverencia por su ridiculez y mala figura en cuya atención mandaba y mandó SSI al Cura y mayordomo de fábrica de dicha Iglesia que dentro de quince días de la publicación de este auto dispongan se quite del citado altar la expresada efigie de San Pablo, se deshaga, y sus pedazos se entierren en la nominada Hermita.*

Oharrak: auzoan oraindik bizirik dago ermita antzina Berreaga mendiaren tontorrean kokatua zegoelako ustea.

## SANTI MAMI

Abuztuaren 17koa. Santi Mami izena du; San Mames edo San Martin (?) ere deitzen da. Ermita buruan dagoen irudia apezpiku batena da. Ikus Ugaldegurengo San Martin ermita.

Santi Mami auzoan, Vista Alegre hilerriaren aurrean kokatua dago, Derioko tren geltokitik hurbil. Hurbileneko baserriak: Bentakozubia, Usunagagoikoa, Usunagabekoa, Magalarte, Ezkertzagoikoa, Ezkertzabekoa, Zubi, Montorra, Maurikabaso, El Jardín eta Ugaldeguren.

1967ra arte hego-mendebalderago zegoen, orain dagoen tokitik 100 m ingurura. Lur saila erosi zuenak (Olavarria Hnos. sozietatea) egin zuen eraikuntza berria; material berberak erabili zituen eta lehengo ermitaren estiloari eta neurriei eutsi zien.

Eraikinak oinplano laukizuzena du, 8 x 6 m-koa. Harri horma igeltsuztatuak ditu eta fatxadak agerian ditu harriak; kantoiak eta sarrerako arkuak harlanduz eginak daude. Hiru isurkiko teilatua du, kanpai-hormarik gabe. Barruan sartzeko badu zirkulu erdiko arku handi bat hego-mendebaldean; atea dagoen arku hori zurezko barra lodiez eta metalezko sareez babestua dago. Zoladura porlanez egin dago habeartean, eta adreiluz, aldare aldean. Oinetan elizpea du; elizpe horretan, hormari atxikia, badu banku jarraitu bat.

Ez dugu aurkitu agiririk ermita honi buruzko aipamenik egiten duenik; Zamudioko parrokiako Fabrika Liburuetan ez da behin ere aipatzen. Fabrika Liburuotan, ordea, badira San Martin izeneko ermita baten aipamenak; 1676tik aurrera hainbatetan aipatzen da. Zamudioko Udalaren Kontuen Liburuan ermita horren kokapenaren berri ematen da: 1749an, San Martin ermita berria Ugaldeguren auzoan egin zela adierazi zen; dudarik gabe, ermitari eginiko zaharberritze sakonen bati buruzkoa da aipamen hori.

Iturritzak ere Ugaldegurengo San Martin ermita horren berri eman zuen, nahiz eta ermitaren aztarnarik egon ez.

Biei kokagune bera eman zaienez (Santi Mami ermita Ugaldeguren edo Ugaldune baserriaren inguruan kokatua dago), izen bi dituen ermita bat baino ez direla pentsatu du G. Arregik. Izen biotako bat izendapen kultua da: San Martin; dokumentazioan izendapen hori baino ez da ageri. Bestea, berriz, herri izendapenari dagokio: Santi Mami; hura da azkenean nagusitu dena.

Badu Santi Mamiren irudi bat (mutilatua).



## SAN TOMAS ERMITA

Ospakizuna izaten da San Antonio Paduakoa (ekainaren 13a) izan eta hurrengo domekan.

Arteaga auzoan kokatua dago eta inguruan baserri hauek ditu: Sandoikaurrekoa, Sandoikabekoa, Sandoikabarria, Ibarra, Ibarbekoa, Arkotxa eta Bidetxe.

XV. mendeko obra gotikoa da, ildorik herrikoieneri jarraiturik egina.

Eraikinak oinplano laukizuzena du, 9,85 x 7,14 m-koa. Harri hormak ditu: harri hormok igeltsuztatuak daude hego eta ekialdeko aldeetan; gainerako aldeetan, berriz, harriak agerian daude. Kantoiak harlanduz eginak daude. Bi isurkiko teilatua du teilatu-kutxilo baten gainean. Hegoaldean arku zorrotzeko atea du eta iparraldean leiho buruduna du. Zoladura porlanezkoa da. Elizpea Epistola ondoan dago. Ate gainean bada igeltsuzko plaka bat, SANTO TOMAS dakarrena.

Irudi hauek ditu: San Tomas, San Anton abadea eta San Martin.



## UGALDEGURENGO SAN MARTIN eta AJURIKAKO SAN MARTIN

Aztertu diren iturri dokumentalek erakutsitakoaren arabera, baziren ermita bi horiek, nahiz eta gaur egun ez dagoen haien arrastorik.

\* Iturritzak Zamudioko Ugaldegurengo San Martin ermita aipatzen du bere *Historia General de Vizcaya* liburuan.

\* Zamudioko Arteagako San Martin elizaren Fabrika Liburuetan badira ermita honen aipamenak 1741, 1761, 1773, 1791, 1828 eta 1857an eginiko bisitetan. Azken urte horretako bisitaldian honako hau jaso zen:

*Hermitas: también se visitaron las Hermitas de San Martín, San Antonio y San Miguel y otras, y habiéndolas encontrado en estado indecente y desarreglado mandaba y mandó SS Itma. a las personas a cuyo cargo está su conservación procuren hacer los reparos que tiene necesidad y tenerlas con aseo y limpieza bajo la misma multa y apercibimiento.*

\* 1761eko martxoaren 2an, Jose Ormaetxe Zamudioko bizilagunak, Ugaldeguren izeneko etxean bizi zenak, hilburukoa egin zuen eta ermita batzuetan bere arimaren aldeko mezak ateratzeko eskatu zuen: hilburuko horretan aipatutako ermiten artean, gaur egun galdua dagoen San Martin ermita zegoen.

\* Zamudioko Udalaren 1787ko maiatzaren 20ko kontuetan —kontuok aurreko urteari buruzkoak ziren— honako hau adierazi zen:

*Disputa por el reconocimiento de mojones del Ejido de la ermita de San Martín de Usunaga, dueño de la casa de Mauricabaso.*

Izan liteke, beraz, San Martin izen zaharra izatea eta Santi Mami, Ugaldeguren aldean kokatua dagoen ermitaren izena, ermitaren oraingo izena baino ez izatea.

## SAN MIGEL ERMITA

Irailaren 29a, Mikel goiaingerua.

Ermita honen lehenengo aipamena XVI. mendeko agiri batean aurkitu da. XVII. mendean, lan batzuk egin ziren eta ondorioz multzoa beste elementu batzuek jantzi zen (gaur egun galduak daude); elementuon artean dago, esaterako, Juan Pinuagak 1672an eraikitako kanpandorra.

1984an zaharberritu egin zen.

Daño auzoan Urresti mendi hegalaren muino txiki batean kokatua dago, haritz, arte eta gaztainondo baso txiki batek inguratzen duen belardi batean. Hurbileneko baserriak: Etxeandia, Arginena, Jule, Dañogoiko eta Dañobeitia.

Eraikinak oinplano laukizuzena du, 8,25 x 5,20 m-koa. Harri hormak ditu, harriak agerian dituztenak; kantoiak harlanduz eginak daude. Bi isurkiko teilatua du, teilatu-kutxilo baten gainean. Elizpuren estalkiaren gainean bada hareharrizko gurutze bat. Ipar-mendebaldeko horman ate buruduna du eta hego-mendebaldeko horman leiho buruduna du; leiho hori saietera izan zen antzina. Habearteko zoladura harlauzaz egina dago. Oinetan elizpea du.

Badu Mikel goiaingeruaren irudi bat.